

Literatura | POESIA

*Urari ostutako poemak*  
Pako Aristi.  
Susa, 2014



## Ahaztuta geneuzkanaz

MIEL ANJEL ELUSTONDOK bota zion Pako Aristiri ARGIAN bertan, ekialdeko pentsamendua guztiz presente dagoela *Urari ostutako poemak* argitaratu berri honetan, eta Urrestillakoak bere zehaztasun berezi horrekin, erantzun zuzen bat ematen duena baino egiazkoago beti, oneskiago beti: “Ekialdeko pentsamendua baino gehiago, bizitzaren aurreko jarrera bat da”.

Noiz ahaztu zitzaigun bada guri sentitzea?

*Castletown* (1996), *Oherako hitzak* (1998), *Libreta horiko poemak* (2003)... bide bat egin du Pako Aristik zerbaiten bila, gero eta sakonago begiratzera eroan duena, naturaltasunaren poeta handi bihurtzeraino. Inoiz begitandu zaizkit bere idatziak negartiak eta kexaontziak, baina orain ez, urteekin hobeto ulertzen dut daukan joera anarkista hori, liberearekiko atxikimendua: “Gizakiaren gaitza:/ Pentsatzea./ Neurri egoki guztien gaintetik/ eztanda egin zuen/ garunaren mende.// Garun hiper-garatua/ piztia ahul baten gorputzean”. Teknikaren eta gerren mundu honetan galdu dugun inozentzia dakar Aristik atzera ere, gogoraziz badugula zilbor bat lotzen gaituena orain arteko gure ama guztiakin eta ahaztutako sentsazioekin: bizitza, errukia, heriotzaren ederra.

Gonbita egiten digu beraz zeozer sentitzera, kontentzioak baino harago burrukatzera gizakiaren

alde, gizakiaren aurka. 69. orrialdeko “Ni, Rosa Ugartemendia Sarobe” poemaren amorrua, deskripzioaren negargura, mamiaren eta formaren arteko lotura perfektua, jenioen kontua dira.

Hitzak baino harago ari direnen kontua, *Urari ostutako poemak*. Gustatu zait liburuari darion esentzialismoa, zen izan barik. Gustatu zait, halaber, naturari kantatzea politikoa izateari utzi gabe. Zentzu horretan Aristiren azken aldiko saiakera lanen eta artikuluen dekantazio lirikoa dirudi batzuetan liburuak, eta beste batzuetan denok gaingaitzen gaituen unibertsoari egindako aintza: “Izango naiz berriro enbrioi,/ ernamuin arina/ haize leunen abaroen”. Gertu eta urrun. Gu eta besteak. Hasiera eta amaiera. Hara berriro planteatu nahiko lituzkeen kontzeptuak.

Intelektualizazioak utzi eta bihotza hunkitzen duen poesia filosofikoa da *Urari ostutako poemak*. Tituluak iradokitzen duen legez, poemak existitzen ziren lehendik. Orain munduaren korronteak ekarri dizkio Pako Aristiri berak transkriba ditzan, esaldiak errepikatuz eta errepikatuz. ■

Igor Estankona



**Kanporaketak**

Zeanurin, azaroaren 9an, 17:30ean, Ibarreta frontoian

Ander Elortegi Garatea    Beñat Vidal Gurrutxaga    Igor Meniha Bengoetxea    Imanol Uribe Abizuri    Joseba Barandiaran Andueza    Xabier Galetxebeitia Abaroa

www.bertsozale.eus/bizkaikotxapelketa

Bizkaiko bertsozale txapelketa    Argia